

## **II. KULTURAREN EUSKAL PLANERAKO JARRAIBIDEAK: 2009-2012** **(2009-02-19)**

## **Aurkibidea**

### **HITZAURREA AURKEZPENA**

#### **1. PLANGINTZARAKO TESTUINGURU ETA IRIZPIDE BERRIAK**

##### 1.1. Testuinguru berria

- 1.1.1. Globalizazioa eta aldaketa teknologikoa
- 1.1.2. Birzentralizazio ekonomikoa eta kulturala
- 1.1.3. Aukerak erabileran, herritarren kontzientzian eta lurraldeetan

##### 1.2. Plangintzarako irizpideak

#### **2. II. KEP: HELBURUAK, IKUSPEGIA, EKARPENAK ETA IRIZPIDEAK**

##### 2.1. Helburuak

##### 2.2. Ikuspegia

##### 2.3. Planerako ikuspegi berriak

##### 2.4. Egitura-irizpideak

#### **3. II. KEPren EGITURA-IRIZPIDEEN, HELBURUEN ETA PLAN ERAGILEEN PROPOSAMENA**

##### 3.1. II. KEPren garapenaren eskema nagusia

##### 3.2. II. KEPren eskema nagusiaren garapena (2009-2012)

#### **4. II. KEP, 2009-2012, EBALUATZEKO ETA SEGIMENDUA EGITEKO PROPOSAMENA: KULTURA-ADIERAZLEAK**

##### 4.1. Proposamenaren helburuak eta ezaugarriak

##### 4.2. Ebaluazioaren uneak

##### 4.3. Adierazleen diseinua eta eraikuntza

##### 4.4. Kultura-adierazleak (prestatzen)

## HITZAURREA

Europako kulturaren zati txiki bat garenez, sormenaren eta produkzioaren alorrean beste kultur ingurune batzuek baino ahalegin handiagoa egin beharko dugu. Horretarako, jakintzaren, informazioaren eta kulturaren aro honetan, kulturaren ere espezializatu beharko gara, identitatea berritzeko eta identitate hori barne erabileran eta harremanetan sustatuko duen sektore ekonomiko berri bat sortzeko. Alegia, kulturaren espezializatzea gure kultura indartzeko eta egokitzeko baldintza da. Ikuspuntu horretan kokatzen zen Kulturaren lehen Euskal Planaren hausnarketa.

Hori lortzeko, ordea, ez du edozein bidek balio. Euskal gizartearen nortasunetik eta sormenetik abiatuta, gizarte honen heterogeneotasuna onartu behar da eta integrazio soziala bilatu behar da. Barnera begira egin behar da apustu, kulturaren modernizazioaren eta berrikuntzaren alde, eta aldi berean kanpora begira ere bai, gure kulturaren kanproiektzioaren alde.

Joera horretan kokatzen da II. KEP hau. Lehen Kulturaren Euskal Planaren (2004-2008) lau urteko kudeaketan jasotako ikaskuntza kolektibo baliotsu haien emaitza dugu orrialde hauetan ageri den Plan proiektua. Lantaldeetan parte hartu duten kulturako 300 bat lagunek ekarpen, ohar eta iritziez gain, tarte horretan kultura politikako jarduerak kudeatu eta garatu dituzten administrazioetako lantaldeena ere aipatzekoa da. Aurreko planak bezalaxe, plan honek hainbat ekintza jasotzen ditu eta ekintza horiek zehaztu, garatu eta zuzendu egin behar dira beharrak eskatu ahala.

Helduaroan sartzen ari den plana da; zuzen hasitakoari jarraipena ematen diona; inora ez garamatzaten bideak alde batera uzten dituena; egitura eta funtzioa finkatzen dituena; egituraren, esperientziaren, gobernantza partekatuen eta irudimenaren oinarritik bide berritzaileetara irekitzen dena.

Miren Azkarate Villar  
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua

## AURKEZPENA

Plan estrategiko bat euskal herritarren zerbitzura dagoen tresna izateaz gain, lan-plana ere bada, kasu honetan kultura dinamizatzeko lan-plana. Ikuspegi estrategikoa du, eta baita jarduera irizpideak eta ekintzen kudeaketan zenbait lehentasun ere. Aurrez egon den eztabaidari esker, eragile pribatuei, publikoei eta sozialei laguntzen die.

Horrez gain, ekintzak koordinatu eta ezarri, baliabideak arrazionalizatu edo sinergiak sortu nahi dituzten zenbait erakunde partekaturen konpromisoa da; eta hori guztia elkarren arteko eskuduntzetan eta eragile sozial edo pribatuen erabakietan sartu gabe.

Kulturaren Erakundearteko Batzordeak (Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako, hiriburuetakoa eta Eudeleko kultura-arloez osatua) aurkeztu du, eta denbora honetan guztian lanean aritu diren 12 lantaldeen parte-hartzearen eta hausnarketaren emaitza da, baita administrazioen aurrekontu erabilgarriarena ere. Kulturaren Euskal Kontseiluari dagokio hura baliozkotzea edo aldatzea.

Kontuan izan lehen eta bigarren kapituluak orientagarriak, osagarriak direla eta ez direla baliozkotu behar (eztabaidatu, ordea, bai); izan ere, garrantzizkoena, Kulturaren Euskal Kontseiluak aztertu beharrekoa, plan- eta konpromiso-kapitulua da, aurreko planean bezala. Lehenengo kapituluan testuinguruaren zenbait ekintza daude eta hainbat irizpide orokor ematen dira aditzera.

Bigarren kapituluan 2009-2012 plan estrategiko berriaren helburuak, ikuspegia eta segimendua eta ebaluazioa egiteko irizpideak birformulatzen dira.

Hirugarren kapitulua lehen KEPean 'ardatz estrategiko' eta oraingoan 'helburu orokor' diren horiei dagokie (gutxiengo dira bigarren planekoak). Halaber, lehen 'jarduera-ildo' zirenak 'helburu espezifikoa' dira orain. Hauek ere aurrekoak baino gutxiago dira, baina zehatzagoak. Arreta berezia egiten zaie sektoreekin hitzartutako jarduera-planetako 'proiektuei' (lehen, 'ekintzak'), baita administrazioak egoki deritzen zeharkako jarduera-planetakoei edo sektoreen artekoiei ere (aurrekoen jarraipena, gehienak).

Laugarren kapituluak 2009-2012 KEPren ebaluazioa eta segimendua egiteko bideak iradokitzen ditu.

## 1- PLANGINTZARAKO TESTUINGURU ETA IRIZPIDE BERRIAK

Euskal kulturak, oro har, (*Euskal Herriaren Kultura*), euskal herritarren kulturak, XXI. mendeari aurre egiteko apustu kulturala egin du eta apustu honek, ondarearen balio-katea alde batera utzi gabe, sormenaren, ekoizpenaren eta trukearen zirkuituetan izena eman nahi du. Jarduera eremu hori oinarritzko arazoek eta indar-guneek baldintzatzen dute. Kulturaren aldeko eta teknologiaren, sormenaren, ekoizpenaren eta harreman eta eragineko sareen zirkuituetan sartzearen aldeko apustua da eta apustu horren barruan ekintza hauek sartzen dira: baliabide adierazgarriak aprobetxatzea eta sustatzea; komunitate mailan ari denez, ahalik eta adostasun gehien lortzea; eta kulturak eta komunikazioak autopista, sare eta kanal berrietan bidaiatzea.

Hona hemen testuinguruaren funtsezko zenbait elementu: alde batetik, sormena eta merkatu kulturala merkataritza gai bihurtzea eta nazioartean zabaltzea mundu global eta digitalean; eta bestalde, kultura-, erlazio- eta gune prepolitiko honen (*Euskal Herria*) tamaina txikia eta zatiketa. Azken ezaugarri horrek apustu kulturalen bideragarritasuna eta kostua baldintzatzen ditu.

Egoera hori are gehiago nabarmentzen da euskal kulturaren euskarazko alderdian eta gainera, hiru esparru juridiko-politikoaren arteko adostasun-falta (Iparralde, Nafarroa eta EAE) eragile garrantzitsua da.

### 1.1. Testuinguru berria

Politika publikoak eta kulturalak garai bakoitzeko erronken menpe daude, behar nabarmenen menpe, bete beharreko gabezien menpe eta sustatu edo aurre egin behar zaien joeren menpe. Kultura Politikaren tresnak irakaspen-aurrerapenetan oinarrituak egon daitezke, baina tresna aiposenak zehazteko testuinguru orokorren azterketa eta aplikagarri izango diren esparru aldakorren azterketa behar da.

#### 1.1.1. Globalizazioa eta aldaketa teknologikoa

Iraultza digitalak berarekin dakar sareen kalitatea hedatzea eta komunikazio-modu berriak sortzea. Horrek arriskuak ditu nagusiak ez diren kulturentzat, bereziki kultura txikientzat. Hala ere, aukerak aprobetxatuz indarra eta aukerak garatu daitezke eta ahuleziak eta arriskuak gutxitu.

Banakako sistemak, sistema elkarreragileak eta multimedia sistemak sortu izanak komunikazio orokorrera garamatza, eta, zehazki, kultura-komunikazio oparo, azkar, nonahiko, pertsonalizatu eta trukagarria. Horrek mundu osoko belaunaldi-maila guztiei eragiten die, gazteei batez ere. Aldi berean, ziberespazioaren erabilera masiboak, aurreikusi gabeak, sortu dira, eta teknologia, aplikazio, erabilera eta edukiak esku pribatuetan uztearen aurkako erresistentzia handiak ere bai: lizentzia irekiak, *copy/left* jarduerak...

### **1.1.2. Birzentralizazio ekonomiko eta kulturalerako joera.**

Alderdi ekonomiko orokorrean, baliabide ugari kontzentratu dira (enpresen egoitzak, telekomunikazioak, azpiegiturak, bankuak...) Madrileko eskualdean, eta Autonomien Estatuaren garapenak ere ezin izan joera hori berdindu. Kulturaren eta komunikazioaren ere birzentralizazio-prozesuak eman dira eta prozesu horiek komunitate askoren ahalegin kultural eta komunikatiboak indargabetu dituzte. Ondorioz, jarrera aktiboena duten komunitateek beren ekintzak biderkatu behar izan dituzte prozesu horiek berdindu ahal izateko. Fenomenoa nabarmena da bereziki ikus-entzunezkoen eremuan, irrati-telebisten egoitzetan eta I+G+B zentroetan, eta ondorioak sortzen ditu enpresa hornitzaileen eta osagarrien kokapenean.

Eragileak deslokalizatzeko sareetako gaitasun teknologikoak desagertu egiten dira, neurri handi batean boterearen, teknologien, joeren eta merkatuen arteko sinergien eraginez; eta ondorioz, metropoli-kontzentrazioa eta sareko konexioa beste estatu batzuetan ere ematen den birlokalizazio-fenomenoaren parte dira (Frantzia, Italia...). Eredu erradiala eredu erretikularrari eta horizontalari gainjartzen zaio, eta neurri batean bere zerbitzura jartzen du.

Hala ere, beste lurralde-eragile batzuk kultura-politikan gogor hasi dira. Garai bateko eragile garrantzitsuenak –Estatuak eta “nation building”era begira kulturari buruz duten kontzeptu instrumentala– partzialki ordeztuak izan dira kultura-aniztasunaren ikuspegiaren eraginez. Nortasun sendoa eta eraikitzen ari diren kulturak dituzten komunitate naturalak, eragin askoren menpe daudenez, ezin dira kultura eta komunikazioaren zenbait alderditan espezializatu, arrazoi kulturalak eta ekonomikoak direla medio. Kulturari dagokionez, ezagutza, talde-integrazioa eta nortasuna adierazten duten produkzio propioekin kudeatu behar dituzte beren ondarea eta iruditeria; ekonomiari dagokionez, industria tradizionalaren ordeztu jarduera berriak bultzatu behar dituzte —besteak beste, kulturalak eta komunikaziokoak—, sektore estrategikoa eta berria izaki.

Muga horiek aurreikusita ere, beharrezkoa da gune kultural, teknologiko, ekonomiko eta politikoei eustea, barnean eta kanpoan gune eta sare garrantzitsua osatzeko eta aurkako joerei egoki aurre egiteko. Horretarako, bitartekoak, erakundeak eta erabakiak behar dira.

### **1.1.3. Aukerak erabileran, herritarren kontzientzian eta lurraldeetan.**

Erabilera soziala norabide interesgarrian aldatzen ari da ezagutzaren gizarteetan. Ondareen eta ekipamenduen balioa handitu egiten da identitatea babesteko, gure memoriaren hariei jarraipena emateko, bizitzaren kalitatea hobetzeko edo turismoa hobetzeko, eta horrek erakunde klasikoak gazteagotu egiten ditu (museoak, liburutegiak...) eta eskaintza berriak dituzten ekipamendu-mota berriak sortzen dira. Ondorioz, erabilera kulturala etxeko kultura eta komunikaziotik haratago doa.

Era berean, musikako eta arte eszenikoetako ikuskizunetarako kultura ohituren indartzeak kultura partekatua, etxetik kanpokoa, bultzatzen du. Fenomeno hori gazteen artean nabari da bereziki, eta eskaintza kulturala eta sorkuntza lantzeko aukera ugari dakarzkie.

Ziberkultura, komunikazioak ugaritzea, ezagutza hedatzea eta partekatzea, taldekako egiletza, estetikak, modak eta produktu kulturalak hain azkar berritzea eta lanen balio-bizitza edo bizitza komertziala laburtzea fenomeno berriak dira, kudeaketa-modu berriak eskatzen dituztenak.

Gizarte zibilak aurrera egin du; hori dela eta, partaidetza bila dabil, hirugarren sektorearen babespean, eta integrazio-politiken bidez ekin dio immigrazio berriaren fenomenoari.

Gainera, aldaketak malguak dira. Herrialde, hiri edo eskualde bakoitzak garrantzia gauza batzuei emango die, eta zenbaitetan gai osagarriei ematen zaie garrantzia: lurralde bat birsortzea, desegindako ekipamendu eta hiri-sareak berreskuratzea, kulturaren alor batean edo kultura-industrietan edo turismo kulturean espezializatzea. Edo agian helburu kualitatiboagoak nahi dituzte. Esaterako, munduko erakundeek aniztasunaren alde eginiko apustuarekin bat, herrialdeek beren identitatea eta taldearen espezifikotasuna indartzeko nahia izan dezakete, edota kanpo-aitorpena eta kanpo-ikuspegia indartzekoa, eta hala beraientzat eta besteentzat eredu izan. Horrez gainera, berdintasunezko logika eta talde-sarbideko logika areagotzeko nahia izan dezakete edo bi gauzak konbinatzeko nahia. Hala, berdintasun errealak –ez formalak– desberdintasuna onartu eta sustatu beharko luke desberdintasuna aberastasun kulturala denean, eta desberdintasunak mugatu beharko lituzke berdintasun eza adierazten dutenean.

## 1.2. Plangintza-irizpideak

Hauek dira mundu mailako doktrina-ikuspegiak, paradigmak edo egituraketa-irizpideak, garapeneko eredu berriak dituztenak eta herritarrekin eraginkor eta adeitsuak izan nahi dutenak:

- a)- parte hartze bidezko *Gobernantza*, gero eta erabaki eraginkorragoak eta demokratikoagoak hartzeko eta kudeatzeko;
- b)- “Ongizate Estatua” sozialki eskatzea, sozializazio oparotik gertu baina gizarte-bazterkeriaren aurkako gutxieneko politika soiletik haratago, kulturara sarbidea eta integrazio kulturala barne hartuz;
- c)- Garapen Jasangarriari buruzko Goteborg-en estrategia, baliabideak, ekoizpen-ahalmena eta trukea orekatzen duena;
- d)- aro digitalean Lisboako Agendako konpromiso hirukoitzak: jasangarritasuna, Jakintzaren Ekonomia eta Guztiontzako Informazioaren Gizartea, gizarte-kohesioarekin lotuta.
- e)- eta, azkenik, UNESCOren Kultura Aniztasunerako estrategia, nortasunak aintzat hartzea abiapuntu duena.

## 2- II KEP: HELBURUAK, IKUSPEGIA ETA IRIZPIDEAK.

Kultura-plangintza batek bi elementu ditu gutxienez: pentsamenduaren eta ekimenen alorra definitzea, eragileek jakin dezaten zerri jaramon egin; eta estimuluak erronkei aurre egiteko inbertsio eta laguntza-sistema gisa zehaztea, Administrazioaren konpromiso bihurtzeko.

Oro har, egitura-arazoei ekin behar die, baita balio-katearekin lotutakoei ere, trebakuntza, sorkuntza, ekoizpen eta banaketatik hasi eta kultura-erabilerekin amaituz. Kulturako sektore guztientzat mesedegarria izan behar du, sektore bakoitzeko desberdintasunak zuzentzen lagundu, sormena berrikuntza-mintegi bihurtu, ondarearen balio-katea garatzen lagundu eta erabiltzaileei kultura duina eskaini, nahitaez beti merkatuaren mende ez dagoen kultura.

II. KEPen (2009-2012) egon behar dute paradigma klasikoek —berdintasuna, aniztasuna, pluralismoa, jasangarritasuna, elkartasuna eta parte-hartzea—, lehentasun eta eginkizun berriekin bada ere.

Lehen planean baino nabarmenago jorratu du bigarrenagoak sektoreekiko elkarlana, eta zenbait jarduera-plan partekatu sortu dira. Hartara, Kulturaren Euskal Kontseiluak (KEK) sektorekako zenbait plan adostu baliozkotu ditzake, baita sektore edo erakunde arteko zeharkako plan edo garapenak ere. Erakundeei dagokie, batez ere, plan horiek garatzea, irizpide orientagarriak emanez.

### 2.1. Helburuak

II. Kulturaren Euskal Plan honen helburuak hauek dira:

- a) Sare instituzionala eta sinergiak sortzen dituzten sektore arteko eta zeharkako ekimenak sendotzea.
- b) Sakontasunean irabaztea, kulturako sektoreekiko harremana adierazi ez ezik hemengo azken zokoraino eta diasporaraino iritsi dadin, bai produktu eta zerbitzu kultural gisara, bai kultura-kudeaketako *know how* modura.
- c) Sektorekako konpromisoak zehaztea —I. KEPk baino gehiago— eta elkarrekin jarraipena egitea. Horretarako, erakundeen interes orokorraren alde lanean jarraitu behar dute, eta gizarteak izan behar du azken titularra.
- d) Bermatzea kulturako alor guztietako programek eta laguntza-sistemak lehentasuna ematen diotela euskarazko eduki eta zerbitzuak bultzatzeari.



## 2.2. Ikuspegia

Aurrekoarekin bat, horrelakoa izan daiteke II. Plan honen ikuspegia:

BERE TXIKIAN HANDIA DEN KULTURA BATEN GARAPENEAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA DA KULTURAREN EUSKAL PLANA, JASANGARRIA, BIZIA, ASKOTARIKOA ETA ESKURAGARRIA JAKINTZAREN ETA GLOBALIZAZIOAREN GURE SASOI HONETAN.

## 2.3. Planerako ikuspegi berriak

Hoan hemen planaren alderdi kualitatibo nagusietako batzuk.

### 2.3.1. *Kultura-politikaren zentralitatea herrialdeko politika gisa*

Jakintza gure garaiko baliabide nagusia da: jakintza, irakaskuntza, I+G+B, patenteak, datu-baseak, sareak...kultura.

Kultura-politikak hiru kontzeptu hartzen ditu aldi berean:

- a) gizarte-politika (hezurmamitzea, jakintzaren gizarte-sarbidea eta -banaketa).
- b) politika kulturala kultura-kapitalaren alderdi guztietan, komunitate- eta identitate-kultura eraikitzean, kulturaz gozatzean eta sektore ekonomiko baten ekarpenean (herrialdearen arabera, BPGaren % 2.5 eta 4.5 artean mugitzen du eta familia-gastuaren % 14-18);
- c) sistema guztiaren funtzionamenduko sinergiak sortzen dituen zeharkako politika, ondorio ugari eragiten dituena (integrazioa eta ongizate soziala, turismoa, zerga-ekarpenak,...).

Kultura-politika klasikotik (kultura konpartimentu gisa hartzen duena) herrialdearen erdigune den kultura-politikara salto egin beharko litzateke.

### 2.3.2. *Euskal Herriko kultura- eta hizkuntza-espazioaren kontzeptua*

II. KEP honek Euskal Herria den harreman-esparruaren alde lan egiten jarraituko du (EAE, Nafarroa eta Iparralde). Esparru honek historia, kultura eta hizkuntza partekatzen ditu eta baita hizkuntza gutxitu baten diglosia ere (EAEn euskal hiztunak % 33 dira eta Euskal Herri osoan % 25) eta horrek diskriminazio positiboa eskatzen du, baina ez soilik irakaskuntzan edo erakunde- eta gizarte-mailan, baita kulturaren ekoizpenean ere. Kontziente gara EAEn soilik dugula eskuduntza eta lege- eta erabaki-esparruari eta herritarrei zor diegun errespetua kontuan izanik, diasporan sakabanatuta daudenak barne, harremanak ezarri behar ditugu, aurrea hartu behar dugu eta konpromisoak hartu behar ditugu.

Barnera begira, askotariko espazio konplexua da (azpikulturen batura), baina irekita gaude kanpora begira bi norabideetan proiektuak gauzatzeko eremu globalean, nahiz eta badakigun trukea beti izango dela asimetrikoa. EAEn geometria aldakorra aplikatu behar dugu barrutik kanpora eta kanpotik barrura, eta bitarteko guztien bidez estatuko gainerako komunitate guztiak kontzientziatu behar ditugu, gertukoena batez ere, kultura guztiarekin aberasten den kultura bat garelara eta ez garelara besteen menpe dagoen kultura.

Kultura ireki eta partzialki mestizatu baten barne-garapenak landa-eremu, eskualde eta hirien arteko oreka eskatzen du, betiere Euskal Hiria, euskal metropoli polinuklear eta orekatua, Euroeskualdea, jomuga direla.

Beste era batera esanda, estatu mailako kultura-politikaren bidea zabaldu dugu eta Lurralde Historikoeekin partekatutako eta koordinaturiko filosofia lortu ditugu. Orain, hauek dira konpondu beharreko arazoak: tokiko gaietan jauzi kualitatiboa ematea (udalerrietako plangintzarako teknikarien prestakuntza, adibidez); barne-egoerari dagokionez, errespetuzko trukearen bidez geratzera etorri den immigrazioaren ekarpenak partekatzea. Hori guztia lortzeko Euskal Herrian beharrezkoak dira anaitasunezko eta interes amankomuneko harremanak eta askotariko kultura partekatuaren kontzientzia duen belaunaldia. Diasporari dagokionez, berriz, kultura bizi eta norabide bikoitzeko baten transmisio eguneratuaren bidez lortu behar da, eta atzerrian harreman irekien bitartez.

### **2.3.3. Gobernantza**

Lehenengo plana talde-dokumentu bat izan bazen definizioan, garapenean, inplementazioan eta exekuzioan, orain sortzen ari diren egitura berriekekin ez da administrazioa eta sektoreen arteko harreman soila izango, bi eremuak autoeraldatu dira lankidetzara emankorra lortzeko. Era askotara adierazi daiteke:

a) Administrazioa eta erakunde berriak (Behatokia, Kulturaren Kontseilua eta Lan Taldeak, Etxepare Institutua, etorkizuneko Arte eta Kultura Industrien Euskal Institutua) bakoitza bere talde profesionalarekin. Interes orokorren eta ondasun publikoen erantzukizuna duenarentzat beharrezkoa eta posible den guztiaren markoak definitzen eta sektoreetako ardura eta partehartzea definitzen lagunduko du guzti horrek.

b) Harreman-eredu berriak ezartzea finantziazio- eta lankidetzara-ereduetan (cluster eta miniclusterretan, adibidez), eragileei diru-laguntzak emate hutsetik baterako erabaki eta kudeaketara joz.

### **2.3.4. Hitzartutako sektore-garapen berriak**

Jarduera-planetan ikusiko duzue, jauzi kualitatibo bat dago, aurreko planarekiko, eduki eta konpromisoerik, proiektu zehatzei eta adostutako lanei dagokienez, zeinek Planaren zati handi bat hartzen duten.

Sektoreen arteko garapen orekatua da helburua, lantaldeek eurek sortuak badira ere zehatzenak eta osoenak. Halaber, Kontseiluari eta lantaldeei proposatu zaie hauta ditzatela tiramen handieneko proiektuak (beltzez, koadroan), hots, proiektu bultzagileak edo egituratzaileak eta, nolabait, lehentasunezkoak.

Sektoreen arteko elkarte korporatiboak garatzea eskatzen du horrek, sektorekako hitzarmen estrategikoen bidez.

### 2.3.5. Sustapen-bide berriak

Garrantzi goreneko ekonomia-sektore estrategikoa da jada kultura. Honenbestez, sormenari eta sortzaileei lagundu behar zaie lehenbizi, horiek ematen baitiote zentzua balio-kateari; ondoren, politika industrialeko tresnak, finantza- eta zerga-politikakoak, hezkuntza-politiketakoak (zeharkako ikaskuntzak), hirigintza-neurriak (hiri adimendunak eta jasangarriak) eta azpiegituren alorrekoak (edukiei ematea lehentasuna, edukitzaile enblematikoen gainetik).

Horretarako, gero eta koordinazio estuagoa behar da, bai erakundeen artean, bai sektore pribatuarekin, sortzaileekin eta gizarte zibilarekin. Enpresa eta proiektuentzako sustapen-sistema positiboen estrategia osagarriak dira.

Lerro batzuk aplikatzen hasita daude zenbait autonomia-erkidegotan: Diru-itzulketa duten finantzaketa-lerroak<sup>1</sup>; kopuru txikiagoan, berme-funtsak edo abalak, bankuetatik pribilegiozko interesak eskuratzeko (adibidez, Espainiako eskala orokorrean Ikus-entzunezkoan egindakoa); sektore bateko enpresen artean lankidetzak-clusterra eratzea, —administrazioak babestuta—, ohiko diru-laguntza sistema osatzeko (ikus-entzunezkoen eremuan Euskadin, Galizian edo Valentzian egindakoa), zenbait finantzaketa-politika aplikatzea, hala nola ekarpen pribatu berriak (museoen lagunak, mezenasgoa...) edo bolumen handi samarreko herri-lanetan egindako inbertsioen %1 kulturarako gordetzea.

Beste batzuek zailtasun handiagoak dituzte eremu horretan sartzeko, arrisku-kapitala eskuratzeko edo zerga-eremuan, adibidez.<sup>2</sup>

### 2.3.6. Nolakotasuna: kulturaren sorrera eta erabiltzaileak

Normalean, enpresa ardatz duten helburu kuantitatiboak eman izan zaie lehentasuna: Orain, alderdi kualitatiboari eman behar zaio lehentasuna, balio-katearen bi muturretan: sormena (zentzua ematen die kultura-eskakizunei aro globalean, non pertsonak, jakintzak, I+G+B... diren bereizgarriak) eta kulturaren erabiltzaileak (kulturarekin harremanetan dagoen gizartea).

Indarra ekoizpenetik eta ekipamenduetatik prestakuntza, sormena eta gizarte-erabilerara eramanez beharko litzateke (haiek laguntzen jarraituta, hala ere). Oreak lortu behar da jabetza kolektiboaren eta kulturaren iturrien artean: ezagutza eta sormena.

Sorkuntzari dagokionez, ezagutza eta kulturaren garaietan gaude, eta desafio nagusia ez dira edukitzaileak, ezta edukiak ere; batik bat giza baliabideak, sormena, prestakuntza, esperientzia, irispideak, irudimena, jakintza, aplikazioak... hartu behar dira kontuan. Horretarako, paradigma, erregistroa, aldatu beharra dago; gizartea bera aldatu behar da, eta

<sup>1</sup> Gaur egun ugariak dira kreditu publiko merkearen edo hitzartuaren (Administrazio, ekoizle-elkarte eta banku pribatuaren artean) bideak osatutako finantzaketa-politikak; horietan hobariak ezartzen dira interes-tipoetan, eta jarritako baldintza da kapital-ekarpen pribatua izatea edo ekoizle-elkarteek autonomiako finantza-erakunde publikoekin hitzarmena izatea.

<sup>2</sup> Zerga-eremuan, gainera, oraindik ez dira sartzeko inbertsioari egindako desgrabazio fiskalak, *tax lease* neurria eta parekoak edo aukera fiskaleko behin-behineko inbertsioak. Sozietate-zergan edo PFEZean kenkaria edo salbuespena duten zerga-tipoak, berriz, sartzeko, kultura-mezenasgoaren bidez dohaintzak egiten direnean. Mezenasgoaren inguruko araudietatik kanpo —Gipuzkoan kulturaren egindako inbertsio orok desgrabatzen du—, fiskalitatea ez da erabiltzen kultura-industria pizteko (hala ere, eraginkorra ote den zalantza badago). Europako Batasunak ere ez du aurrera egin, eta ez du ezarri kultura-adierazpenetan BEZa murrizteko zerga-tipoen bandarik.

adimen-sare zabala osatu behar da (hori da gure garaiko baliabiderik ugariena, eta, aldi berean, urriena, sormenari eta konplexutasunari dagokienez).

Erabiltzaileei dagokienez, bere portaera ezagutu behar da —ohitura eta jardueri buruzko makroinkesta bat egin dugu— eta norabide positiboenetara eraman. Txikitatik sustatu behar da kultura-adierazpenekiko zaletasun aktiboa, hezkuntzan eta eskaintzan batez ere, horiek baitira kultura-zaletasunak sortzen diren eremu nagusiak.

Helburua da eskaintzari tira egiteko baldintzak sortzea, eskaria sortuko duelakoan diharduen eskaintzaren joera konpentsatzeko. Eskaintza sustatzeko laguntza automatikoak eta heziketa, pedagogia eta kalitatea bateragarriak dira, eta hauek dira eskariaren segmentu batzuetan ezarri beharreko politikaren ardatzak.

Bide horretatik doaz zenbait antzerki- edo musika-ikuskizunen formatuak (tamaina askotakoak) dibertsifikatzea, ondareen aurkezpen birtuala, haurrei eta gazteei bereziki zuzendutako euskarazko DVDen eskaintza..., hau da, erabiltzaileen premietara egokitzeko bidean.

### **2.3.7. Sektoreartekotasuna eta zeharkakotasuna**

Jarduera- edo sektore-politiken osagarri, bi bide erabili behar dira, gero eta gehiago erabili ere:

- a) Sektore arteko proposamenekiko harmena. Aldatzen ari dira egungo kultura-proposamenak. Zenbait gurutzaketa esanguratsu ari dira izaten, eta eremu berriak sortzen. Sakonean, produktuaren eta prozesuaren gainetik jarritako ideia itzultzea da.
- b) Zeharkako edo sektoreen arteko proposamenek 'ongarritu' egiten dute kulturgintza, helburuak partekatzea dakartelako, batetik, eta, bestetik, eragin biderkatzailea dutelako (hezkuntza, informazioa, informatizazioak...) nahiz eta teknologia berriek eredu mistoak ahalbidetu. Neurri orokor eta balioanitzeko laguntza-neurrien integrazio gero eta handiagoari laguntzen dio horrek, eta mundu guztiak ezagutzen dituen arauak sortzen.

### **2.3.8. Komunikazioa**

Komunikazioa kultura-ereduaren zati da.

Egungo komunikazioaren eta ikus-entzunezkoen sistema zabalak prestigioa galdu du, hainbat arrazoi dela medio: zabor-ekoizpena, informazio baldintzatua, programazio errepikatuak, boterearen kontzentrazioa eta botereekiko batasun funtzionalak. Paradigma zahar horiek (askatasuna, kalitatea, profesionaltasuna, kultura eskuratzeko eskubidea...) higatu ahala, gero eta garrantzi handiagoa hartuko dute eremu publikoan komunikazio interaktiboek (blogak edo banaketa-zerrendak), hau da, "zerorrek egin, zure lagun berriekin" gisakoak.

Gainera, orain TDTa estatuaren, herrialdearen eta udalen artean banatzen denez, zentralizazioa eta pribatizazioa areagotu egingo dira; hortaz, beharrezkoa da geurea planifikatzea, batez ere zerbitzu publikoak eredu bihurtzea eta irrati-telebistako operadore pribatu lizentziadunei betebeharrak ezartzea. Zentralizazioa eta pribatizazioa ez ezik, gaztelaniaren nagusitasun are handiagoa ere etorriko da, nahiz eta teknologia berriek eredu

mistoak ahalbidetu <sup>3</sup> Ahalmen handi samarreko sistema propioa diseinatu edo bultzatzen behartzen gaitu horrek, zerbitzu publikoaren eginkizunei gogotsu ekitera, komunikazio-sistema publikoan zein pribatuan, eta Ikus-entzunezkoaren Euskal Kontseilutik behatzera haren kalitatea eta aniztasuna.

### **2.3.9. E-kulturako politikari ekitea**

E-kultura ez da kultura berria, une batean saretik igarotzen diren kultura-prozesuak baizik. Kultura digitala atzo goizekoa da, eta, batik bat, kultura analogiko zaharra (Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartearen zati hori ere) eta haren oinarri den antzinako kultura tradizional edo klasikoa birziklatzen ditu. E-kulturako politika horietan bildurik agertzen dira edukiak, balioaniztasuna, komunikazioa, interaktibotasuna, baliabide berriak, hiritar-sareen dinamizazioa (gazteen artean, batez ere), kudeaketa-era berriak... Hala ere, iruditeria analogikoaren atzaparretan jarraitzen dugu.

E-kulturako politikari dagokionez, ekimen ugari bultza daitezke. Adibidez, *II. Euskadi Informazioaren Gizartearen Planean (EIGP)* hauek ageri zaizkigu, Kultura Sailak proposatuta: kulturari buruzko atari interaktibo bat Interneten (kulturaren informazioaren diseinua, garapena eta egintza, denbora errealean, instalazio kulturaletarako bisitaldi, gidari, zerbitzu eta ibilbide birtualekin), bai informazio kulturalerako web bidez (gida, eskaintza, sarreraren erreserba eta erosketa...) bai telefonia mugikor bidez; euskal entziklopedia digital bat sortzea, baliabide kultural eleaniztunekin (historia, geografia, artea, kultura, soziologia, memoria historikoaren berreskuratzea, ikerketak...), kalitatezko edukiak bilduz eta kanpoan gaikako alderdi kulturalen hedapena erraztuz; kultura ondarearen digitalizazioa eta zaintza sustatuz (liburuak, aldizkariak, egunkariak, agiriak, argazkiak, mapak, partiturak, soinu-erregistroak, bideoak..., horretarako irizpide eta gomendio teknikoak emanez, digitalizazio-arau erkideekin, lan bikoitzik ez egiteko, eta ondarea eta dokumentazioa erosi eta formatu digitalean zaintzeko plan bat).

### **2.3.10. Berrikuntza-kontzeptua zabaltzea**

Kultura, fisikoa nahiz materiari gabea, zentzu-sortzailea da beti, eta berrikuntza da beti; baina berrikuntza edo sormen oro ez da kultura (zentzu zorrotzean), eta ezin da kultura sormenaren edo berrikuntzaren zati izan, kultura *item* bat gehiago bihurtu daitekeelako.

2006ko abenduan <sup>4</sup> Europako Batasunak berrikuntzaren kontzeptu zabalagoa (aurreko urteko Osloko eskuliburukoa baino zabalagoa) azaldu zuen. 2005ekoak jardura komertzial, teknologiko, antolakuntzako, zientifiko eta finantzarioei bakarrik aplikatzen ziren kontzeptu hori; 2006koak, berriz, prozesu, kalitate, komunikazio eta produktuei ere zabaltzen ziren.

Aldaketa onuragarri hori aurrera egiten ari da, eta hor sartzen dira oinarri teknologiko handieneko esparruak (postproduzioa, multimedia, animazioa, efektu bereziak, 3-D, ikus-entzunezko interaktiboak, bideo-jokoak...) edo historia- eta ondare-edukiak digitalizatzeko edo sormen-, ekoizpen- eta edizio-prozesuak. Formatu, prototipo eta serie-pilotuen berrikuntza bera ere bat dator 'garapen esperimentalarekin', eta clusterrak eurak ere antolakuntza berritzailea dira. Norabide horretan jarraitu behar da. Kulturak eta berrikuntza

<sup>3</sup> 2010etik aurrerako TDTaren emisio zentralen eremuak izango du onura gehien. Gainera, irekian ikusiko diren 44 kanaletatik 31 pribatuak izango dira, hau da, % 70 (duela bi urte, Cuatro eta Sexta agertu aurretik, % 40 ziren).

Euskadin gaur arte euskarazko 1,5 kanal besterik ez zegoen (ETB1 eta tokiko kanalen bat); horiek kanal-eskaintzaren % 15 osatzen zuten. 60 kanaletatik euskarazkoak 3 edo 4 izanez gero, % 6 egingo lukete behera 2010ean; gaztelaniak, berriz, % 90 baino gehiago hartuko luke.

<sup>4</sup> Europako Batasuneko Egunkari Ofiziala. "Ikerketa eta garapen zein berrikuntzarako estatuko diru-laguntzei buruzko komunitate-esparrua". Komunikazioak. C 323. 30-12-2006. ISSN 1725-244X.

kulturalak ere atera behar dute etekinik I+G+B politiketatik, betiere sektorerik kualitatiboki berritzaileenarentzat (kultura) berrinterpretatuta.

## 2.4. Egitura-irizpideak

KEPak lehenesten zituen bost norabideak —hamarkada honetan lehenetsiko dira—(egitura sendoetan finkatutako sormenaren eta ekoizpenaren nagusitasuna; integrazio kulturalerako ahalegina; nortasuna indartzea; modernizatzea eta kanpo-proiektzioa) beste modu batera ere azter daitezke. Norabide horiek 1.2 puntuan azaldutako egitura-irizpideetan sar daitezke, eta planaren misiotzat hartu; horietan kokatuko lirateke ardatzak, ekintzak eta kudeaketa-adierazleak.

KULTURA-GARAPEN ESTRATEGIKOA lortzeko norabide horiek berraztertuz gero, **bost** egitura-irizpide nagusi aterako genituzke:

1. **ERAGINKORTASUNA eta GOBERNANTZA.** Egitura egokitu beharra duen (parte-hartzea kontuan hartuta egokitu ere) Administrazio batenak dira bi zati horiek, elkarren osagarriak.
2. **EZAGUTZA,** ezagutza-egitura batetik, Kulturaren Euskal Behatokitik, eratorria. Egitura horrek kudeatu behar ditu kanpoko ezagutza eta azterketa-eskariak ere.
3. **IRISGARRITASUNA,** gizartean eta kulturarekiko harremanean jartzen arreta, eta dinamizazio kolektiboa du helburu. Esparru hauetan gauzatzen da: ondarea eta ekipamenduen erabilerak, eta epe luzera kohesio nahiz integrazio sozialari onura dakarkioten kultura-erabilerak.
4. **KULTURA BIZITASUNA:** sormen eta ekoizpen propioa, eta kulturaren sustapena zein berrikuntza ditu eginkizun nagusi.
5. **NORTASUNA ETA DIBERTSITATEA.** Bi alde ditu: barrurakoa, nortasunari eta hizkuntzari arreta jartzen diena, eta kanporakoa, trukea eta irekidura sustatzen dituena.

### 3. II. KEP-REN (2009-2012) EGITURA-IRIZPIDEEN, HELBURUEN ETA PLAN ERAGILEEN PROPOSAMENA

I. KEP (2004-2008) oinarri harturik zehaztu dira hurrengo jarduera-mailak, II. KEPren (2009-2012) garapena sistematizatzeko, edukiak finkatzeko eta —behin-behingo— proiektuak planifikatzeko. Kontzeptu hauen arabera egin da sistematizazioa:

— **Egitura-irizpideak:** hamarkada honetarako helburuak erakusten dituzten irizpide nagusiak. Bat dator Plan berriaren orientazio orokorreko haien izaera eta I. KEP-ko “esku zabaleko bost hatzak” deritzoguna, hau da, Planaren norabide nagusiak. Egitura-izaerak, berriz, iraupen oso luzea ematen die (10-15 urte).

— **Helburu orokorrak:** kulturako eremu nagusietako garapen-prozesuak egituratzeko gaikako bektore modukoak dira, eta, I KEPren ardatz estrategikoen oihartzun izaki, 10etik 7ra murrizten dituzte. Egitura-izaerak iraupen oso luzea ematen die hauei ere 10-15 urte.

— **Helburu espezifikoak:** helburu orokorrak zehazten dituzte, I KEPren ildo nagusiak birformulatuz eta eguneratuz, epe ertaineko iraupenarekin (3-5 urte).

— **Jarduera-planak:** jarduera-planaren izaera zehazten dute. Zeharkakoak edo orokorrak dira batzuk, administrazioaren ardurapekoak, kulturaren eremu eta sektore guztiei eragiten baitiete, nolabait; beste batzuk, berriz, sektorekakoak dira, lantalde bati lotuak. Halaber, dagokion zutabearen dago zehaztuta zenbait proiektu dauden handik eskegita. Badira, beraz, Zeharkako Jarduera Planak (ZJP) eta Sektorekako Jarduera Planak (SJP).

— **Proiektuak:** oinarrizko jarduera-unitateak, beren kasa edo ekimen zabalagoren baten barruan egitekoak. Eginkizunetan banatzen dira. Bat-lau urte bitarteko iraupena dute (laburra-ertaina).

Koadro hauek irakurtzeko **OHAR** garrantzitsuak:

1. Ez da egongo proiekturik irizpide bakar batean sar daitekeenik; gehiagotan hartuko du parte, eta, beraz, ulertu behar da irizpide zehatz batean sartzea konbentzio bat dela, lehenespen-adierazpena, ez eskusibotasun-adierazpena. Adibidez, ia ekintza guztiek dute eragina identitatean edo aniztasunean, eta, hala ere, irisgarritasunean edo jasangarritasunean jartzea erabaki da, kasuaren arabera, nahiz eta arriskua izan gaizki ulertu eta pentsatzeko “identitatea” “euskara eta kulturarekin” edo “lurraldetasunarekin” lotzen ditugula, argi egon arren KEPren identitate kontzeptua oso zabala dela.

Arteen inguruko zenbait proiektuak, halaber, hedapenean eragina dutenez —programazioak, zirkuituak...— sarbidearekin lotura gehiago dute jasangarritasunarekin baino; hala ere, segimendua errazago egiteko, eta horietan sormena eta ekoizpena nagusi direnez (sektoreek proposatutako proiektu gehienak) badirudi ez dela komeni sektoreekin hitzartutako plan eragileak epigrafe batean baino gehiagotan banatzea.

2. Proiektu batzuk sektore ugarik proposatu dituzte (laguntza-sistema berrikustea, artistak egoitzan, atariak, elkarteak, EITBren kultura-sustapena...), eta administrazioen zeharkako plan eragileei gehitu zaizkie (Eraginkortasuneko eta gobernantzako 1. irizpidea, eragile-izaerarekin, edo komunikazioko 3. irizpidea).



### 3.1. II. KEPren garapenaren eskema nagusia

EGITURA-IRIZPIDEAK	HELBURU OROKORRAK	ZEHARKAKO JARDUERA-PLANAK (ZJP) ETA SEKTOREKAKOAK (SJP)/PROIEKTU-KOPURUA
<b>1I- ERAGINKORTASUNA ETA GOBERNANTZA</b>	1- <b>Kulturaren Euskal Sistema</b> eraikitzea. (5 helburu espezifikiko)	1 ZJP- <b>Erakundeen koordinazioa, eta politika publiko berriena</b> (9 proiektu)
<b>2I- JAKINTZA</b>	2- <b>Kulturaren Euskal Behatokiaren</b> garapena bultzatzea. (3 helburu espezifikiko)	2 ZJP- <b>Jakintza</b> (4 proiektu)
<b>3I- IRISGARRITASUNA</b>	3. <b>Kultura-ondarea</b> sustatzea (3 helburu espezifikiko) 4- <b>Komunikazio</b> soziala, aniztasuna eta aukera-berdintasuna bultzatzea (5 helburu espezifikiko)	1 SJP- <b>Kultura-ondarea</b> (3 proiektu) 2 SJP- <b>Museoak.</b> (proiektu bat) 3 SJP- <b>Artxiboak</b> (3 proiektu) 4 SJP- <b>Liburutegiak</b> (5 proiektu) 3 ZJP. <b>Komunikazio soziala, aniztasuna eta aukera-berdintasuna.</b> (5 proiektu)
<b>4I- KULTURA-BIZITASUNA</b>	5.- Ikusizko <b>arteak</b> , musikalak, eszenikoak eta <b>industria</b> kulturalak sustatzea, baita haien balio-katea ere (5 helburu espezifikiko)	5 SJP- <b>Ikusizko arteak</b> (15 proiektu) 6 SJP- <b>Dantza</b> (6 proiektu) 7 SJP- <b>Antzerkia.</b> (9 proiektu) 8 SJP- <b>Musika eta fonografia</b> (5 proiektu) 9 SJP- <b>Literatura, edizioa eta itzulpena</b> (5 proiektu) 10 SJP- <b>Eskulangintza</b> (4 proiektu) 11 SJP- <b>Ikus-entzunezkoak.</b> (11 proiektu)
<b>5I- ANIZTASUNA ETA NORTASUNA</b>	6- <b>Euskara</b> kulturaren sustatzea (3 helburu espezifikiko) 7- <b>Lurralde-garapena eta nazioarteko hedapena</b> (3 helburu espezifikiko)	4 ZJP- <b>Euskara kulturaren</b> (3 proiektu) 5 ZJP- <b>Lurralde-garapena eta nazioarteko hedapena</b> (6 proiektu)
5. IRIZPIDE	7 HELBURU OROKOR 25 HELBURU ESPEZIFIKO	16 JARDUERA-PLAN (ZEHARKAKOAK, 5; PROIEKTUAK, 27; SEKTOREKAKOAK, 11; PROIEKTUAK, 65) GUZT.: 92 PROIEKTU

### 3.2. II KEP-REN GARAPENA, IRIZPIDE, HELBURU ETA PROIEKTUEN ARABERA

#### 1. EGITURA-IRIZPIDEA- ERAGINKORTASUNA ETA GOBERNANTZA

Helburu orokorra (1)	Helburu espezifikoak (5)	Zeharkako Jarduera Plana (ZJP) edo Sektorekakoa (SJP) eta Proiektuak (beltzez, proiektu eragileak)
<p><b>1:</b> KULTURAREN EUSKAL SISTEMA ERAIKITZEA ERAKUNDEEN KOORDINAZIOAREN BIDEZ ETA SUSTAPEN-POLITIKA BERRIAK APLIKATUTA, KULTURA-BERRIKUNTZA BARNE.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 1.1. Erakundeen arteko lankidetzeta eta elkarlana sustatzea, EAEn eta kanpoan</li> <li>• 1.2. Proiektu kulturalak garatzeko, sektore publiko eta pribatuaren arteko lankidetzeta-bideak finkatzea, horretarako behar diren erakunde edo sareen indartzea barne dela</li> <li>• 1.3. Administrazioen lana sorkuntza, ekoizpen, trebakuntza eta hedapenera bideratzea, eragile eta sustatzaile gisa jardunez, inbertsioan eta planifikazioan egin beharreko lana ahaztu gabe, eta sortze-jarduera pribatuei laguntzea eta bultzatzea.</li> <li>• 1.4. Ikerkuntza eta berrikuntza sustatzea, baita kulturako alor guztietan informazio- eta komunikazio-teknologiaren erabilera ere.</li> <li>• 1.5. Kultura sustatzeko eta laguntzeko sistemak eguneratzea, eta kulturari laguntzeko eta finantzatzeko modu berriak bultzatzea.</li> </ul>	<p><b>1</b> ZJP- KOORDINAZIOA ETA SUSTAPEN-POLITIKA BERRIAK: (9 PROIEKTU).</p> <p><b>1- Arte eta Kultur Industrien Institutua sortu eta abian jartzea.</b>  <b>2- II. KEPko gaiei buruzko lankidetzeta-hitzarmenak sinatzea, EAEn eta hemendik kanpo, erakunde publiko eta pribatuekin.</b>  <b>3- Udal eta herrialde bakoitzean garatzen laguntzea kultura-plangintza, Kulturaren Agenda 21en arabera, foru-aldundien eta EUDELen laguntzarekin.</b>  <b>4- Sektoreetako laguntza-sistemak berrikusi eta eguneratzea, formatu berrien sustapena eta teknologia berriei lotutako aplikazioak barne (ikusizko arteak, dantza, antzerkia, literatura/argitalpena, musika...).</b>  <b>5- Sustapen-programa berriak bultzatzea (finantzazioak, industria-lerroak, aholkularitza...)</b>  <b>6—Sortzaileen sorkuntzari eta egoerari buruz behatokiari eskatutako txostenaren oinarritzko ondorioak garatzea.</b>  <b>7. Kultura-berrikuntza herrialdearen berrikuntzako tratamendu-eremuan sartzea sustatzea.</b>  <b>8. Sektorearen egituraketa sendotzea (dantza, musika...), elkarte eta jarduera finkatuenei lagunduz.</b>  <b>9. EAEn bizitzeko programak finkatzeko ereduak aztertu eta garatzea (antzerkia, dantza...).</b></p>

## 2. EGITURA-IRIZPIDEA: JAKINTZA

Helburu orokorra (1)	Helburu espezifikoak (3)	Zeharkako Jarduera Plana (ZJP) edo Sektorekako (SJP) eta Proiektuak (beltzez, proiektu eragileak)
<p>2. KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA JAKINTZAREN ERREFERENTE GISA GARATU ETA IKERKETA SUSTATZEA, EGOERAREN AZTERKETAK ETA KULTURAREN GARAPENAREN SEGIMENDUAREN BIDEZ</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2.1. Kultura eta estatistikari buruzko sistema partekatu bat sortu eta garatzea, erabakiak hartzen eta bilakaera kulturalaren segimendua egiten laguntzeko komunikazio, gizarte eta administrazio-eragileei.</li> <li>• 2.2. Txostenak egitea, sektoreka eta gaika.</li> <li>• 2.3. Nazioartean alderatzea EAEko politika kulturala.</li> </ul>	<p style="text-align: center;">2. ZJP- JAKINTZA (4 PROIEKTU)</p> <p><b>1- Kulturaren Euskal Esparru Estatistikoa garatu eta hedatzea, urteko jarduera-planak barne direla.</b></p> <p><b>2- Behatokia finkatzea jakintzaren eta informazioaren erreferente gisa, kulturako sektoreen eta herritarren aurrean, hedapen- eta komunikazio-lanen bitartez.</b></p> <p>3. Kultura-eskaintzaren seihilekoko segimendua egitea Euskal Herriko idatzizko hedabideetan.</p> <p>4: EAEko komunikazio-sistemaren eta bere informazio estatistikoko iturrien ezaugarriak aztertzea.</p>

### 3. EGITURA-IRIZPIDEA: IRISGARRITASUNA

Helburu orokorrak (2)	Helburu espezifikoak (6)	Zeharkako Jarduera Plana (ZJP) edo Sektorekako (SJP) eta Proiektuak (beltzez, proiektu eragileak)
3. KULTURA-ONDAREA ETA HAREN BALIO-KATEA SUSTATZEA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 3.1. Foru-aldundiekin elkarlanean, sustatzea kultura-ondarearen oinarriko azpiegiturak, haiei buruzko trebakuntza eta ikerkuntza, eta haien zaintza, kontserbazioa eta zaharberritzea.</li> <li>• 3.2. Teknologia-sareak garatzea liburutegian artxiboen eta museoen sektoreetan.</li> <li>• 3.3. Digitalizazio-arauen prozesua eta kultura-eremuetako aplikazio koordinatua garatzea.</li> </ul>	<p>4 SEKTOREKAKO JARDUERA-PLANAK (12 PROIEKTU) 1 ZEHARKAKO JARDUERA-PLANA (5 PROIEKTU)</p>
		<p>1 SJP- KULTURA-ONDAREA (3 PROIEKTU)</p> <p><b>1: Ondareari buruzko Trebakuntza eta Ikerketako Euskal Zentroa sortzea (ZAIN).</b> 2: EAEko BPGri ondareak egiten dion ekarpenaren balioa aztertzea 3. EAEko eta haren lurralde historikoetako herri-lanetako aurrekontuaren % 1aren erreserba (Euskal Kulturaren Ondareari buruzko 7/90 Legeak aurreikusten du) aplikatzea, lege horrek babesten dituen ondasunen kudeaketan inbertitzeko.</p>
		<p>2. SJP MUSEOAK (PROIEKTU 1)</p> <p>1: Sarean aplikatu eta garatzea Museoetako Sistema Informatikoa.</p>
		<p>3 SJP- ARTXIBOAK (3 PROIEKTU)</p> <p>1: Artxiboetako funtsen kudeaketa eta kontsulta kolektiboa garatzea (BADATOR II). 2: Euskadiko Artxibo Mapa egitea eta eguneratzea. <b>3: Artxibo Historiko Nazionalaren proiektua aurrera eramatea.</b></p>
		<p>4 SJP- LIBURUTEGIAK (5 PROIEKTU)</p> <p>1: EAEko liburutegi-sistema garatzea. 2: Irakurketa Publikoaren Mapa egitea. <b>3: Euskadiko Liburutegiaren proiektua aurrera eramatea</b></p>

		4: Liburutegietako zerbitzuak immigranteen kolektiboen premietara egokitzea. <b>5. EAEko kultura-ondarearen artxibo digitala, Ondarenet, garatzea.</b>
<b>Helburu orokorrak (1)</b>	<b>Helburu espezifikoak (3)</b>	<b>Zeharkako Jarduera Plana (ZJP) edo Sektorekakoa (SJP) eta Proiektuak (beltzez, proiektu eragileak)</b>
4. GIZARTE-KOMUNIKAZIOA, ANIZTASUNA, ETA AUKERA-BERDINTASUNA BULTZATZEA KULTURARAKO KULTURAREN TEKNOLOGIA-APLIKAZIOEN SARBIDEAN, JAKINTZAREN GIZARTEAN	4.1 Herritarrek kultura- eta jakintza-gizartearen onurak eskuratzeko modua eta aukera-berdintasuna izan dezaten eta ordainpeko kulturaren eraginak leuntzearen, kultura-ekimenak sustatzea.  <ul style="list-style-type: none"> <li>4.2 Publiko berriei hurbiltzea, zerbitzu publikoko tresna berriei.</li> <li>4.3 Komunikabideekin elkarlanean jardutea kultura sustatu eta hedatzeko.</li> </ul>	3. ZJP- SARBIDEA ETA KOMUNIKAZIO SOZIALA (5 PROIEKTU)  1: Eskualdeetako irrati eta telebistak (publikoak, pribatuak eta elkarteetakoak) sustatzea. <b>2: EITBren Kontratu Programaren baitan artista eta sortzaileen jakintza, produktu eta sorkuntza artistikoen hedapena (ikusizko arteak, literatura, antzerkia...) eta euskal kultura-industriena bultzatzea (ikus-entzunezkoa...); kultura-jardueren sustapena bultzatzea eta segimendua bermatzea.</b> 3: Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Euskal Kontseilua sortzeko araudiaren segimendua egitea, ikus-entzunezko sektorean aniztasunari eragiten dioten prozesuak behatzeko, besteak beste. <b>4. Kulturaren atari interaktiboa sortzea eta garatzea, musika, antzerkia ... kontuan hartuta, eta euskarari lehentasunezko tratamendua emanda.</b> <b>5. Entziklopedia digitala sarean.</b>

#### 4. EGITURA-IRIZPIDEA: KULTURA-BIZITASUNA

Helburu orokorra (1)	Helburu espezifikoak (5)	Zeharkako Jarduera Plana (ZJP) edo Sektorekako (SJP) eta proiektuak (beltzez, proiektu eragileak)
5. IKUSIZKO ARTEAK, MUSIKALAK, ESZENIKOAK ETA INDUSTRIA KULTURALAK SUSTATZEA, BAITA HAIEN BALIO-KATEA ERE	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 5.1. Arte eszenikoetan, musikaletan eta ikusizkoetan oinarritako azpiegiturak sustatzea.</li> <li>• 5.2. Kultura-industrietako enpresak indartzea.</li> <li>• 5.3. Hainbat alorretako artistak eta profesionalak bultzatzea</li> <li>• 5.4. I+G+B eta esperimentazioa sustatzea arteetan eta industria kulturaletan.</li> <li>• 5.5. Industria kulturaletako produktuen sustapenari/ hedapenari eta arte eszenikoen, musikalen eta ikusizkoen zabalkundeari laguntzeko neurri egokiak hartzea.</li> </ul>	7 SEKTOREKAKO JARDUERA-PLANAK (53 PROIEKTU)
	<ul style="list-style-type: none"> <li>•</li> </ul>	<p>5 SJP- IKUSIZKO ARTEAK (13 PROIEKTU)</p> <p>1: Deialdien malgutasuna areagotzeko ekimenak bultzatzea.  2: Artisten lan pertsonala ekonomikoki baloratzeko neurriak proposatzea laguntza-sisteman.  3: Partaidetza-kuotak irekitzea Euskaditik kanpoko jendeari.  4: Laguntzei dagokienez, epaimahaien eta batzordeen osaera berria sustatzea  5: Trebakuntza-beka gehiago ematea  6: Mintegi eta ikastaroetarako matrikulen finantziario-lerro iraunkorrak irekitzea  7: Sorkuntza-beken iraupena luzatzea.  8: Komisariotza eta kritika bultzatzeko beka sustatzea.  9: Gure Arte sariak aldatzea.  10: Ekoizpena eta sormena sustatzeko laguntzak bultzatzea  11: Informazio erkideko atari bat sortzea edo kulturaren atari interaktiboan sartzea.  12: Herrialdeetako erakunde artistikoen arteko lankidetzak sortzea  <b>13: Heziketa artistikoari eta ikusizko arteetako politika kulturalen erduei buruzko hausnarketa-gune bat sortzea.</b></p>
		<p>6 SJP: DANTZA (6 PROIEKTU)</p> <p><b>1: Dantza Guneak sortzea, edo baliabide-zentroak, dantzaren erreferentzia nagusi izan daitezten.</b>  2: Dantza eta eszena tradizionalari buruzko dokumentazioa kudeatzeko sistema bat eratzea.  <b>3: Dantzako oinarritako eta erdi-mailako zikloko ikastetxe arautuen sarea eta edukiak bultzatzea, eta goi-mailako dantza-zikloa martxan jartzea</b></p>

		<p><b>(Hezkuntzaren eskumena).</b>  4: Sorkuntza- eta ekoizpen-proiektuak finkatzeko laguntzak sustatzea  5: Etengabeko trebakuntzari buruzko koordinazio-mahaia sortzea  6: Dantza-programazioa indartzea</p>
		<p>7 SJP: ANTZERKIA (9 PROIEKTU)  <b>1: Sarearen nortasun juridikoa berriro aztertzea</b>  2: Kaleko antzerkia ere sartzea.  <b>3: Sarea hausnarketa estrategikoa egitea</b>  4: Ekoizpen publikoko esparruak bultzatzea  5: Antzerkia hemendik kanpora Sustatzeko Plana prestatzea.  6: Madrilen eta Bartzelonan euskal antzerkia sustatzea  7: Arte eszenikoetarako zerbitzu-pool bat sortzea komeni den aztertzea  <b>8. Publikoak kudeatzeko plana prestatzea.</b>  9: Haurrak eta gazteak antzerkira erakartzeko ahaleginak egitea</p>
		<p>8 SJP- MUSIKA ETA FONOGRAFIA (5 PROIEKTU)  1: Musikari buruzko sentsibilizazioa eragiteko lantalde bat osatzea.  2: Konpositoreei lanak esleitzeko politika sustatzea.  <b>3: Programazio-zirkuitu publiko eta pribatuaren sorrera bultzatzea.</b>  4: Ekimenak koordinatzeko eta informazioa emateko zentro baten sorrera bultzatzea.  5: Euskal musikaren ataria sortzea edo atari interaktiboan sartzea.</p>
		<p>9 SJP: LITERATURA, EDIZIOA ETA ITZULPEN (5 PROIEKTU)  1: Euskadi Literatura sarietan, ilustratzailearentzako saria zehaztea.  2: Irakurzaletasuna sustatzeko estrategiak sortzea.  3: Euskal liburuak eta literatura sustatzeko plana.  4: Literatura Unibertsaleko katalogoa osatzea.  <b>5: Euskal liburuaren merkatuari buruzko hausnarketa estrategikoa egitea.</b></p>
		<p>10 SJP: ESKULANGINTZA (4 PROIEKTU)  <b>1: Eskulangintzaren zehaztate- eta erregistratze-irizpideak bateratzea hiru lurralde historikoetan.</b>  2: Eskulangintzako produktuen azoka-proposamen koordinatua egitea.  3: Eskulangintzarako negozio-bide berriak garatzea.  4: Gero eta gehiago merkaturatzera bideratutako eskulangintzari buruzko web bateratu bat sortzea.</p>
		<p>11 SJP- IKUS-ENTZUNEZKOAK (11 PROIEKTU)  <b>1: Euskadiko ikus-entzunezko ekoizpenari laguntzak automatikoki emateko sistema berri bat aplikatzea.</b>  2: Laguntzen eta informazioaren egoerari buruzko mapa bat sortzea.  3: ICAArekin egindako hitzarmenaren segimendua egitea, estatuko hizkuntza koofizialeko zinema-</p>

		<p>ekoizpena bultzatzeko.</p> <p>4: Europako zinema-eskola nagusietarako beka sortzea.</p> <p>5: Hezkuntza Sailari proposatzea ikastetxeetatik hasita ikus-entzunezko kulturaren trebatzeari bultzada ematea.</p> <p><b>6: Euskarazko zinemaren emanaldiak eta banaketa sustatzea.</b></p> <p>7: EAEtik kanpo ikus-entzunezko lanak sustatzea, bai merkatuetan bai jaialdietan, sektore osoak babesten duen marka bateratu batekin.</p> <p>8: Interneten euskal zinema nola bultzatu aztertzea, euskarari garrantzizko lekua emanez.</p> <p>9: Hiriguneetako zinema-aretoak zaintzeko bideak aztertzea, baita ikusle berriak erakartzeko eta lehendik zeudenak leialtzeko moduak ere.</p> <p>10: Teknologia berriei lotutako negozio-eredu berriei buruzko azterketa bat egitea.</p> <p><b>11- Azterketa espezifiko bat egitea, euskarazko bikoizketaren eta azpidazketaren etorkizuneko beharren inguruan.</b></p>
--	--	---



## 5. EGITURA-IRIZPIDEA: NORTASUNA ETA ANIZTASUNA

Helburu orokorra (2)	Helburu espezifikoak (6)	Zeharkako Jarduera Plana (ZJP) edo Sektorekako (SJP) eta Proiektuak (beltzez, proiektu eragileak)
6. EUSKARA SUSTATZEA KULTURAN	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 6.1 Kultura-zerbitzuetan, bermatzea euskarazko arreta, bai idatziz bai ahoz.</li> <li>• 6.2. Euskarazko ekoizpena egiten duten sektoreak garatzeko, erakundeen arteko ekimen publikoak ziurtatzea.</li> <li>• 6.3. Euskaraz kalitatezko edukien sorrera bultzatzea kulturaren arlo guztietan (ondarea, arteak eta industriak).</li> </ul>	<p>3 ZEHARKAKO JARDUERA-PLANAK (9 PROIEKTU)</p> <p>4 ZJP: EUSKARA KULTURAN (3 PROIEKTU)</p> <p><b>1: Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planeko proiektuekin koordinatuta jardutea, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eremu kulturean, arte eta kultur esparruko corpus terminologikoaren eguneraketa eta hedapena sustatuz.</b></p> <p><b>2. Bermatzea kulturako alor guztietako programek eta laguntza-sistemak lehentasuna ematen diotela euskarazko eduki eta zerbitzuak bultzatzeari.</b></p> <p><b>3. Bermatzea kulturaren eremu guztietan eskaintzen diren kultura-zerbitzu gehienak euskaraz ere ematen direla.</b></p>
7. EUSKAL HERRIAN KULTURA KOMUNA BULTZATZEA, ETA EUSKAL KULTURA NAZIOARTERA ZABALTZEA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 7.1. Euskal Herri osoan harreman kultural eta artistikoak bultzatzea</li> <li>• 7.2. Europan eta nazioartean EAEko proposamen kulturalak hedatzeko behar diren neurriak zehaztea.</li> <li>• 7.3. Euskal produktu kulturalen esportazioari eta kanpoan hedatzeari laguntzak ematea.</li> </ul>	<p>5. ZJP- LURRALDE-GARAPENA ETA NAZIOARTEKO HEDAPENA (6 PROIEKTU)</p> <p><b>1: Euskal Herrian eta diasporan, kultura-eremu eta – esparruak erakustea eta haien gaineko jakintza eta sustatzea.</b></p> <p>2: Euskal Herriko herrialde guztietako estatistika eta informazio erkideak sustatzea.</p> <p>3: Lehendik dauden kohesio-gaitasun handiko programak/proiektuak koordinatzea.</p> <p>4: Mugaz eta herrialdez gaindiko harremanak sustatzeko, garapen erkideko proiektuak, programak eta ekitaldiak diseinatu eta proposatzea.</p> <p>5: Hainbatean behin aztertzea zer eragin duten komunikabideek lurralde eta eremu erkideetan, eta euskal herrialdeen arteko komunikazio-harremana erraztea.</p> <p><b>6: Etxepare Institutuarekin elkarlanean, EAEtik kanpo eragile publiko eta pribatuen jarduera sustatzea (musika- eta antzerki-taldeek nazioarteko eta estatu mailako birak, nazioarteko azokak, hitzarmenak...).</b></p>

## 4. KEP (2009-2012) EBALUATZEKO ETA HAREN SEGIMENDUA EGITEKO PROPOSAMENA: KULTURA-ADIERAZLEAK

### 4.1. Proposamenaren helburuak eta ezaugarriak

Zenbait egitura-irizpide, helburu orokor eta espezifiko, jarduera-plan eta proiekturen inguruan dago eratuta II Kulturaren Euskal Plana, guztiak ere 2012ra bitartean egitekoak. Segimendu-eta ebaluazio-sistema bat ere badu Planak, kultura sustatzeko egiten diren esku-hartzeen aurrerapen-maila ikusi eta aztertzeko. Hona hemen, labur azalduta, proposamenaren ezaugarriak:

- Bizia eta iraunkorra: Planaren aurrerapenen eta lorpenen berri jakin eta haiek eguneratzeko.
- Parte-hartzailea: erakunde publiko eta pribatuen eta kultura-eragileen lankidetzara iraunkorra eragin dezan.
- Esezifikoa eta orokorra: 19 jarduera-planetako bakoitzean egiten diren aurrerapenak jakiteko, esku-hartzeen ebaluazioaren orokortasuna galdu gabe.
- Berritzailea: informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa konbinatzeko eta herritarrei parte hartzeko aukera emateko, lantalde presentzialen bidez nahiz birtualki, lan-eremu ireki eta espezifiko batean.

### 4.2. Ebaluazioaren uneak

Iraunkorra izan behar du Planaren ebaluazioak eta segimenduak, emaitzen bidez hutsuneak aurkitzeko, egin beharreko jardueren edukia aldatzeko eta, behar izanez gero, proiektu berriak gehitzeko. Kontuan izanik bi urtean behingo jarduera-planen bidez gauzatu dela II. Kulturaren Euskal Plana, urtean behingo esku-hartzeak egingo dira (segimendua), bi urtean behingoak (jarduera-planaren ebaluazioa) eta lau urtean behingoak (ebaluazio estrategikoa):

- Planaren segimendua: ebaluazio-urtea ez den bakoitza amaitzean, egindako lanen segimendu-txosten bat egin behar da. Urtearen amaieran egin behar da lehen txostena, 2009an hasita.
- Jarduera-planaren ebaluazioa (JPren ebaluazioa): bi urteko epe bakoitzaren amaieran, jarduera-plan bakoitzaren ebaluazio-txosten bat egin behar da. Ebaluazio hori egiten den urteetan, ez dago segimendu-txostena egin beharrik. 2010ean egin behar da lehen txostena; bigarrena, 2012an.
- Ebaluazio estrategikoa: lau urtean behin, Kulturaren Euskal Planaren ebaluazioa egin behar da, sektorearen diagnostikoa egin eta kultura-sektorearen estrategiak zehaztu eta/edo osatzeko hurrengo urteetarako. 2008an egin behar da lehen ebaluazioa; bigarrena, 2012an, eta tarte berarekin gainerakoak.

### 4.3. Adierazleen diseinua eta eraikuntza

II Kulturaren Euskal Planaren segimendua eta ebaluazioa egiteko adierazle eta aldagaien diseinua eta eraikuntza prozesu dinamikoa izango da, non Planaren elikagarri izango diren jasotzen diren ikaskuntzak.

Aplikatu beharreko adierazle-multzoari esker, ardatz estrategikoen, jarduera-lerroen eta epe labur, ertain eta luzeko ekimenen balorazioa kualitatiboa eta kuantitatiboa egin ahalko da. Bi maila hauetan aplikatu behar da plana:

A- **Prozesu-adierazleak.** Planean (2004-2008) orain arte garatu direnak, hain justu ere.

— *Gauzatze/segimendu adierazleak:* ezarritako jarduera bakoitzaren garapen- eta aurrerapen-maila argi erakusten dute. Jardueren azterketa kualitatiboa dute oinarri nagusi. Planaren urteko segimendua egiteko jarduera-planaren bi urtean behingo ebaluazioa egiteko erabili behar dira adierazle horiek.

B- **Kultura-adierazleak.** II KEPrako (2009-2012) proposatzen diren adierazleak dira. Bi maila proposatzen dira:

— *Kultura Adierazle Orokorrak:* gizartean izandako eraginaren ebaluazioa egiten dute, luze eta zabal. Ebaluazio estrategikorako eta bi urtean behingorako erabili behar dira adierazle horiek.

— *Kultura Adierazle Espezifikoak:* Kulturaren Euskal Behatokiaren bitartez garatutako euskal kulturaren esparru espezifikoko eta sektorialaren segimenduari dagozkio. Ebaluazio estrategikorako, urtekorako eta bi urtean behingorako erabili behar dira adierazle horiek.

#### 4.4. Kulturaren adierazleak.

Kulturaren adierazleak eraikitzen ari gara une honetan. 2009ko udarako izango dugu lehen proposamen osatua.